

## Gora egin dute COVID-19aren kasuek (% 41) eta ospitaleratzeek (% 51,6)

Osasun Publikoak gomendatzen du pertsona kalteberak prebentzio-neurriei eustea eta 18 urtetik gorakoei eskatzen die beren txertaketa osatzeko hirugarren dosiarekin

### Asteazkena, 2022ko Ekainaren 29a

Ekainaren 20tik 26ra bitarteko astean 3.381 kasu baieztatu dira PCR edo antígeno bidez (512 kasu 100.000 biztanleko), aurreko astean baino % 41 gehiago (31tik 47ra igaro dira). Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (ISPLN) azken **Txosten Epidemiologikoan** jasotzen denez, intzidentzia gero eta handiagoa da 65 urtetik gorakoen artean; horregatik, azpimarratzen du biztanleria horrek eta gaixotasun kronikoak dituztenek, baita inguruko pertsonak ere, prebentzio-neurriak zehurtziaz erabil ditzatela, txertatuta egon arren.

Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian aukera dezakezu hizkuntza.